

¡ ERNAI !

¡Euskara! zugar daukat
 Biyotzezko zorra,
 Gogoz pagatu naya
 Badaukat nik, orra;
 Izerdi gabe, otzak
 Mendi bat legorra
 Zegueta, neurririk
 Beraren tontorra,
 Alcha zizuten zuri
 Zorigaistoz borra.

Asi zanean zure
 Miñ charra azaltzen,
 Eta guk azturikan
 Piškaka ondatzen,
 Ortatikan joan ziñan
 Zerbait indar galtzen,
 Eta gaišo daguen
 Gisara argaltzen,
 Bañan etzaitugu, ez,
 Guk utziko illtzen.

Gauz onak galdu dira,
 Bañan Euskara, ¡ai!
 Badira chit galtzea
 Lutekienak nai;
 Bañan gogor eldurik
 Zure sustrayai,
 Geok egongo gera
 Geok zedorren zai,
 Lorikan egin gabe
 Denak zutik, ernai.

JUAN IGNACIO URANGA.